

Kutxa Fundazioa Natura Elektronikoa Zikloak musika elektronikoaren mugak aztertzen ditu

- **Musika akustikoaren eta sintetikoaren arteko mugei buruzko eztabaida eszenaratu eta irekitzea, bidaia bat eginez hainbat proposamen eta ikuspegitan barrena soinua lantzeko eta, musika sortzeko edo, besterik gabe, soinuak sortze aldera inspiratzeko.**
- **Kontzertu-ziklo hau Dantz-en laguntzarekin antolatu da, eta artistei zuzenean egindako elkarrizketak barne hartzen ditu, haien proposamenei buruzko elkarrizketa sortuz.**
- **Luxuzko artista-zerrendan daude Amorante, Nad Spiro, Julia Bondar, Amsia, Merche Blasco, Sunesis, Clara Aguilar eta Protolectivo.**

Donostia, 2024ko urriaren 24a. Zer da musika elektronikoa? Zer da soinu organikoa edo naturala? Zer dute komunean? Musika akustikoaren eta sintetikoaren arteko, naturala denaren eta “makinek” sortutakoaren arteko mugei buruzko eztabaida zabalduko dugu.

Kutxa Fundazioa Natura Elektronikoa Zikloa soinu akustikoetatik abiatzen diren eta soinu elektroniko edo digitalekin bat egiten duten musika eta testuretan oinarritzen da. Naturaren eta teknologiaren arteko nahasketa da, eta puruenetik sintetikora egiten du bidea.

“Musika-estilo garaikide hauek bereizten dituen ildoak gero eta finagoa da, zailagoa da gaur egungoak bezalako ozeano handi eta anbiguoetan murgiltzen diren hainbeste soinu eta proposamen artistikoren artean nabaritzea”, adierazi du Ane Abalde zikloaren arduradunak. Natura Elektronikoa askatasuna da, esentzia, soinu organiko eta sintetikoak, maxima baten bidez elkartuak: mugarik eza.

Ziklo honetan, sormen-iturri beretik sortzen da dena: benetakotasunetik, naturaletik. Puruen eta gizatiarretatik abiatzen da guztia. Baina soinu eta giro ezkutuenetara bultzatzen da, zer den oso ondo ez dakigun baina esploratzea garrantzitsua den zerbait aurkitu edo bilatzeko. Bilaketa hori da Natura Elektronikoa, funtsezkotik abiatzen den bidaia, ezezagunaren, arrotzaren bila.

PROGRAMA:

24/11/8 Amorante eta Julia Bondar
24/11/29 Sunesis eta Protolectivo
24/12/27 Nad Spiro eta Clara Aguilar
25/1/10 Amsia eta Merche Blasco

Kontzertu guztiak Kutxa Fundazioa Klubean izango dira, 21:00etan.

‘Artebidea’ programaren barruko proiektua

Artebidea talentu artistikoa sustatu eta babestera eta artistek Kutxa Fundazioan ezagutza indibidual eta kolektiboaren sortzaile gisa egiten duten lanari prestigioa ematera zuzendutako programa da. Horretarako, lan hori sozializatzen du pentsamendu kritikoa eta artearen begirada pluralagoa eta zabalagoa garatzeko helburuarekin.

“*Artebidea* programaren barruan, bederatzi proiektu desberdin aurki daitezke, eta horien artean dago ‘Natura Elektronikoa’ zikloa. Desberdintasunak agerikoak diren arren, helburu komun bat partekatzen dute: arteek, humanitateek eta kulturak ezagutzaren eraikuntzan egiten duten ekarpenaren balioa nabarmentzea”, azpimarratu du Abalde.

Zehazki, *Artebidea* programa 2024-2030 Plan Estrategiko berriaren ‘Ezagutza biziz’ lan-ildoaren barruan kokatzen da. Helburua ezagutzaren kultura sustatzea da, pertsonak egungo erronka eta aukeretara hurbilduko dituen, gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatu eta eraikitzeko.

Musika-zikloari buruzko informazio guztia www.kutxafundazioa.eus webgunean.